

# Ikastetxe guztietan 'bullying'-aren aurkako plana izateko eskatu dute

EILASek arazoari aurre egiteko neurriak eskatu dizkie Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - DONOSTIA

Ikastetxe guztiek *bullying*-aren kontrako planak izan ditzatela eskatu zuen, atzo, EILAS sindikatuak, arazo hori uste baino larriagoa delako eta era berezian aurre egin behar zaiolako. Era berean, *bullying*-ari aurre egiteko neurriak hartzea tokian tokiko gobernuei dagokiela azpimarratu zuen, eta eskaera zehatzak egin zizkien Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari. Besteak beste, irakasleak eta gurasoak prestatzeko eskatu zuen, eta ikastetxe bakoitzean egoeraren azterketa zehatzak egiteko, emaitzen arabera egin beharko lirakeelako arazoari aurre egiteko planak.


Ruben Belandia EILASeko kideak azaldu zuenez, hondarribitar gaztearen heriotzak *bullying*-aren aurkako politikan erabakiak hartzeko balio behar du, eta jarrera aldaketa eskatu zien hezkuntza arduradunei. «Hondarribiko gaztearen heriotza mugarrria izan behar da gure ikastetxeetatik *bullying*-a desagerrarazteko borrokan. Borroka hori ezin da izan sindikalista burugogor edo irakasle kementsu batzuen asmo eroa», adierazi zuen Belandiak. Hala, *bullying*-ari aurre egiteko politika zuzentzeko ardura Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza Sailak beraiek dutela nabarmendu zuen. Belandiak gogoratu zuenez, *bullying*-aren kontrako borroka «antolatua» izan behar da, eta ikastetxe guzti-guztietan —publikoetan zein pribatuetan— eragin behar du.

EILASek Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari proposatzen dizkien neurrien artean, gurasoei eta irakasleei *bullying*-ari buruzko informazioa eta formazioa eskaintzea dago. Belandiak nabarmendu zuenez, arazoa «betikoa» izan arren, herritarrek ez dute behar den moduan ezagutzen, eta horrela ezin zaio behar den moduan aurre egin. Era berean, ikastetxe bakoitzean egoeren azterketak egiteko eta horren ostean neurri zehatzak proposatzeko eskatu zuen.

## Egoera «aprobetxatu» beharra

Jokin Z. 14 urteko hondarribitar gaztearen heriotzak *bullying*-aren inguruan zabaldu duen eztabaidak ekarri duen hausnarke-ta horrelako gertaerak berriro ez gertatzeko «aprobetxatu» beharra dagoela azpimarratu zuen Belandiak. EILASeko kideak gogoratu zuenez, giza eskubideen aldeko kultura sortu zenetik, familian zein eskolan gertatzen ziren zenbait jazarpen egoera berrikusi egin dira, eta onartezinak zirela esan zen. Hala, apurka-apurka egoera eta jarrera horiekin bukatzeko borroka hasi zirela argitu zuen.

Baina borroka horiek beti izan dute aurrera egiten lagundu dien gertaera bat, eta Hondarribiko gaztearen heriotzak Euskal Herrirako balio behar duela nabarmendu zuen Belandiak. Norvegian, esaterako, Dan Olweus irakaslea hasi zen *bullying*-a aztertzen, bere eskolako haur bi hil ondoren. Erresuma Batuan, ur-



JOSE MARIA AVILES psikologoak eta EILASeko Ruben Belandiak *bullying*-ari aurre egiteko zenbait neurri proposatu zituzten, atzo. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

tero 16 gaztek egiten zuten bere buruaz beste, eta hango gobernua *bullying*-aren kontrako neurriak hartu behar izan zituen. «Hemen ere, Jokinen heriotzak aldaketa ekarri behar du *bullying*-aren tratamenduan», adierazi zuen EILASeko kideak.

## Iztuetaren «inhibizioa» salatu du CCOO

Hondarribiko gaztearen heriotza Espainia osoan gertatzen dela eta Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza sistemaren

gaitza bakarrik ez dela esan zuen Anjeles Iztueta Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak. CCOO atzo erantzun zion, eta *bullying*-aren arazoari aurre egiteko erantzukizuna eskatu zion. «Adierazpen horiekin inhibizioa erakusten du Iztuetak, arazoa berea ez balitz bezala», esan zuen CCOO.

Bestalde, ustez Jokin Z. hondarribitarari tratatu txarrak eragin zizkieten Talaia institutuko ikasleek herenegun gauean bukatu zuten Ertzaintzaren aurrean egin beharreko deklarazioa.

## Analisia ① ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA



## Ume kontuak ez, heldu kontuak

**H**ondarribiko gaztearen heriotzak makina bat orioitzapen ekarri dizkio gogora herritar askori. Izan ere, *bullying* berba inoiz entzun gabe zeudenek ere ondo dakite zer den. Nork ez du inoiz ikusi etengabe eraso den ikaslea? Batzuk erasotzaileak izan ginelako, beste batzuk biktimak izan ginelako eta besteak ikusleak izan ginelako, baina ikasle gaztearen aurkako tratatu txarrak guztiok ezagutu ditugu. Irakasleek ere sarritan salatu dute euren egoera. Ikastetxeetan indarkeria dagoela eta arazo horri nolabait aurre egin behar zaiola diote, baina gehienek euren

kontrako erasoak bakarrik salatzen dituztela uste dute. Ikasle gazteak, beste biktimak, ahazten zituzten. Azkenean, «betikoa» errepikatzen zen: «Ume kontuak dira, garrantzirik gabekoak».

Baina Hondarribiko gaztearen heriotzak ikasle gazteen aurkako tratatu txarrei aurre egiteko balio behar du. Eta horretan funtsezkoa izan beharko da hezkuntza bera. Eta sarritan ahazten bazaigu ere, hezi ez dute irakasleek bakarrik egiten. Hau da, heldu guztiok daukagu ardura gure gaztearen hezkuntzan. Gu geu gara *bullying*-aren biktimak modu batean edo bestean, eta ho-

ri nabarmena da. Gurekin zerikusia ez daukan arazoren bat begi aurrean ikusten dugunean, beste aldera begiratu ohi dugu; umetan bezala, ez gaitzala gu harrapa. Eta bestearen eraso estaltzen duena konplizea da. Nerabezaroan ikasitakoa, heltzerakoan agertzen da.

*Bullying*-a bezalako arazoa agertzen denean, gure gazteak hezi behar ditugula diogu. Baina, beharbada, helduak hezten hasi beharko ginateke, gazteek helduei ikusten dietena errepikatzen baitute. Gizartea bera da biolentzia —gerrak nortzuek egiten dituzte, bada?—, eta ez gara harritu behar gazteek indarkeria jarrerak erakusten dituztenean; ez gara harritu behar erasoaren ikusleek beste aldera begiratzen dutelako, hori ikustera ohituta daudelako. Gu geu hezita, gure gazteak moralki egokiagoak diren jarreretan heziko ditugu, itsuaren jarrerak berriro ez ikusteko.

## ① EILASek egin dituen eskaerak

*Bullying*-aren arazoari aurre egiteko, tokian tokiko gobernuek erantzukizuna hartu behar dutela uste du EILASek, nahiz eta jakitun izan arazoa «gizarte osoarena» dela. Hala, Eusko Jaurlaritzari eta Nafarroako Gobernuari zenbait eskaera egin dizkie:

**Prestakuntza.** Irakasleek eta gurasoek prestakuntza jaso behar dute, *bullying*-a zer den, nola antzeman daitekeen eta nola aurre egin ahal zaion ezagutzeko. Ikastetxeetatik urrun ikastaro bakan batzuk eskaintzea nahikoa ez dela izango dio EILASek, prestakuntza ikastetxeetan bertan eman behar dela. Hala, *bullying*-az ikastetxeetan hitzaldiak edo bestelako informazioa emateko prest agertu da EILAS.

**Helduen presentzia aztertu.** Ikastetxe bakoitzean helduen presentzia txikiena diren esparru eta denbora tarteak zeintzuk diren aztertu behar da EILASen iritziz. Azpimarratu duenez, leku eta tarte horietan gertatzen dira ikasleen arteko eraso gehien-gehienak.

**Zaintzaile gehiago.** Azterketa horren emaitzak ezagutu eta gero, esparru eta denbora tarte horietan helduen presentzia aregotzeko eskatu du EILASek. Sindikatuak aurreratu duenez, begirale eta zaintzaile gehiago jarri beharko dira atsedendaldi eta jantoki orduetan. Bigarren hezkuntzako autobusetan zaintzaileak jartzea proposatu du, gaur egun ez daudelako. **Laguntza telefonoa.** Biktimei laguntza emateko eta ikasleen artean gertatzen diren jazarpen egoeren salaketa egiteko dohako telefonoak jartzea eskatu du EILASek.

**Azterketak ikastetxeetan.** Ikastetxe bakoitzean *bullying*-ak duen eragina jakiteko, azterketak egiteko eskatu du EILASek. Horretarako, ikastetxeek Jose Maria Avilesek egindako galdetegiak erabiltzea proposatu du. Azterketon emaitzen arabera hartu beharko lirakeke neurriak, sindikatuaren iritziz.

**Tratamendua.** Biktimei zein erasotzaileei tratamendu egokia emateko, ikastetxeen esku adituak jartzea proposatu du EILASek. Erasotzaileak zein biktimak gazteak direla eta aldatzeko aukera eman behar zaiela azpimarratu du sindikatuak.

**Ikusleen jarrera.** Erasoak ikusten eta ezagutzen dituzten lekuko jarrera aldatzea «ezinbestekoa» da EILASen ustean. Eraso horren aurrean «itsuarena» egiten dutenen jarrera aldatu behar dela dio, ahulenaren alde jar daitezen.

# «Guztion arazoa da»

**'BULLYING'-AREN DEFINIZIOA.** 'Bullying'-a zer den eta aurre nola egin dakioken azaldu du Jose Maria Aviles psikologoak, eta erantzukizuna gizarte osoarena dela azpimarratu du

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - DONOSTIA

**J**okin Z. 14 urteko Hondarribiako gaztearen heriotzak hautsak harrotu ditu, eta euskal herritar askok lehenengoz entzun du *bullying* terminoa. Jose Maria Aviles psikologoa gai horretan aditua da, orain zortzi urte hasi baitzen gaia aztertzen, eta *bullying*-ak *mobbing*-aren bidea jarraituko duen beldur da. Hau da, herritarrek *bullying*-a ikastetxe guztietan ikusteko beldur da. «Pazientzia izateko eta hausnarketarako sasoia izan behar da. Ez dagoen tokian ez dugu mamurik ikusi behar. Lehenengo eta behin, *bullying*-a zer den zehaztu behar dugu. Ez da nahastu eta orokortu behar, *mobbing*-arekin egin izan den bezala, bestela mesede eskasa egiten diegulako biktimei», agertu du.

Hala, *bullying*-aren definizio hau eman du: «Beren-beregi prestatutako jarrera da, errepikatzen dena, denboran jarraitua, eta botere absolutuaren eragina beste inon baino hobeto azalarazten duena». Avilesen hitzetan, boterea eta mendekotasunaren arteko harreman garbi-garbia dagoenean esan daiteke *bullying*-a dagoela. «Erasotzailea indartsuagoa izaten da beti, fisikoki zein psikologikoki edo gizarte harremanen sarean lotura handiagoak dituelako. Biktima, berriz, lotuta dago, ezin du bere egoera salatu, ikastetxetan erasoak gertatzen direnean, isiltasunaren legea nagusi delako».

Hori dela-eta, *bullying*-a gizarte guztiaren arazoa dela uste du Avilesek, eta ez bakarrik erasotzaileena edo biktimena. Erasotzaileak ikusten dituzten lekukoek ere arazoa dute. «Adin horretan, nerabezaroan, izaeraren zati handia garatzen dela kontuan izan behar da, heziketa morala hartzen dela. Horregatik, erasoan aurrean beste aldera begiratzen ohitzen den pertsonak arazoak izan ditzake gerora, arazoan aurrean jarrera hori hartzera ohitu daitekeelako».

## Plan orokorrek ez dutela balio dio Avilesek

Erasoa guztiona izan arren, ikastetxetan elkarbizitza hobetzeko neurri orokorrek ez dutela balio azpimarratu du Avilesek. «*Bullying*-a ez da gatazka bat, gatazka baten alde batek defentsarako aukera duelako. *Bullying*-a jasaten duenak ez dauka aukera

hori, boteredunak erabat zapaldua duelako. Beraz, egoera bakoitzerako neurri zehatzak hartu behar dira», adierazi du.

Era berean, neurri zehatz horiek hezkuntza komunitate osoak adostu behar dituela azpima-

rratu du, arazoa ere guztiona delako. Hala ere, *bullying*-ari aurre egiteko helduek zeresan handia dutela argitu du Avilesek. «Biktimak ezin du bere egoera zein den esan, lotuta dagoelako, baina bere egoeraz aztarna batzuk utz di-

tzake: jateari utzi, bere barruan sartu, ikastetxera joateko gogorik eza... Egoera horien aurrean, adi-adi egon behar du helduak, ume kontuak direla pentsatu barik. Bera izan daiteke biktimaren salbazioa», agertu du.

*Bullying*-a «betidanik» ezagutzen den fenomenoaren eragiten duen ez da zehazten sarritan. Avilesek egin zuen azterketan —Europar antzeko emaitzak izaten direla zehaztu zuen—, ikasleen %6k onartzen dute inoiz ikaskideek eragindako tratu txarrak jaso dituztela. Tratu txarrak eragin dituztela aitortzen duten gazteak %5,8 izan ohi dira. «Baina garrantzitsua ez da zenbat pertsona dauden horrela; aurre nola egin argitzea da garrantzitsua».



Eta, Jonen bezalaxe, ezintasun psikikoren bat duten pertsona guztientzat, 5 milioi eurotik gorako diru-laguntzak eman ditu **kutxazabalek** 2004. urtean. Diru-laguntza horiek, besteak beste, Gipuzkoan laguntza-zentro berriak sortu eta berauek hornitzea dute helburu, ezintasunen bat duten pertsonen lagundu eta bizi-kalitatea hobetzeren. Pertsona hauengana hurbiltzea baita betiere **kutxa gizarte-ekintzaren** zeregina.